



ASTEAZKENA

2024/05/01

12. urtea, 1.965. zenbakia

107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 95€

Larre irekiera festak izango dituzte Larraitzen eta Komizarren

Eguerdian jarriko dute ganadua Aralarko larreetara bidean, eta horren bueltan festa izango da goiz osoan Larraitzen; Amasamendin musika eta hamaiketakoa izango dute //

2

Sutarri dantza taldearen urteurrena ospatzeko festa

25 urte betetzen ditu Alegiako taldeak, eta urteurren festa izango dute larunbatean; jantziekin eta argazkiekin erakusketa osatu dute //

6

Hamabi talde lehiatuko dira Nescup txapelketan

Infantil mailako neskak lehiatuko dira gaur, Berazubiko zelaian; Tolosa CF-ko bi talde eta Alegiako Intxurre daude taldeen artean //

7



Olatz Irazustabarrena, Gorka Arandia eta Iñaki Lizaso Ataria Pilota Topaketako antolakuntza taldeko kideak. I. GARCIA LANDA

Hastear da Ataria Pilota Topaketa, 300 pilotarirekin

Bihar ekingo dio VIII. Ataria Pilota Topaketak; eskuz bost mailatan eta palaz bi mailatan jokatuko dute eskualdeko pilotari gaztetxoek; finalak Baliarraingo frontoian jokatuko dira, ekainaren 29an //

4-5

Fp

CIFP FRAISORO ESKOLA LH II

2024

2025

Fraisoro eskola

Elbarrena Auzoa, 12 · ZIZURKIL · 943 692 162

fraisoro@fraisoroeskola.eus

GURE ESKAINTZA

Heziketa-zikloek 2.000 orduko iraupena dute, D hizkuntza ereduan.

NEKAZARITZA

OINARRIZKO MAILA

• Nekazaritzako eta Abeltzaintzako jardueretako Oinarrizko Profesionala.

ERDI MAILA

• Lorezaintza eta Loregintza Teknikaria.

• Nekazaritza eta Abeltzaintza Ekoizpeneko Teknikaria.

GOI MAILA

• Basoa eta Natur Ingurunearen kudeaketarako Goi maila Teknikaria.

ELIKAGAIEN INDUSTRIA

ERDI MAILA

• Elikagaiak Eraldatzeko Teknikaria.

ATE IREKIAK

Maiatzak 4, larunbata • 10:30

AURREMATRIKULAZIOA

Maiatzaren 6tik 24ra

BAZKARIAK

ETA AFARIAK

asteazkenetik

larunbatera

KONTSULTATU:

(beste egunak, taldeak, ospakizunak, ekitaldi bereziak...)

R.ZABALA

SINCE MORE THAN 200 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA · ADUNA · INFO@RZABALA.COM

943 69 07 74 · RZABALA.COM

Mobilizatzeko deia luzatu diete langileei

Maiatzaren Lehenean ez da Tolosaldean mobilizaziorik egingo, LABek Iruñera joateko deia luzatu du, eta ELAk, berriz, Iruña eta Bilbon egingo ditu manifestazioak; EHKS Bilbon mobilizatuko da

Erredakzioa

Tolosaldean ordezkariak duten sindikatu nagusiek eskualdetik kanpo egingo dituzte Maiatzaren Leheneko ekitaldiak. LABek Iruñean egingo du gaur mobilizazio nagusia, 11:30etik aurrera, eta eguna sindikatuaren 50. urteurrenako ospakizunekin borobilduko du. ELAk, aldiz, *Antolatu, borrokatu, irabazi* lelopean bi manifestazio egingo ditu: Iruñeko Gurutze plazatik abiatuta bat, eta Bilboko Jesusen Bihotzetik abiatuta bestea, biak 11:30ean.

LABek dio geroz eta «bortitza-goa» dela egungo kapitalismoa eta sistema «heteropatriarkal eta kolonialak» langileen artean adin, genero nahiz jatorriaren arabera desberdintasunak sortzen dituela. Zerbitzu publikoak ahultzen ari direla uste du sindikatu abertzaleak eta osasungintzaren egoera «kaskarra» jarri du horren adibidetzat.

Langile borroka zabaltzen leloarekin ospatuko du Maiatzaren Lehena LABek eta bere sorrerako konpromisoan berresteko baliatuko du gaurko eguna. «Langileen antolakuntza eta borrokaz, Euskal Herriaren nazio askapenerako eta eraldaketa sozialerako bidea zabaltzen jarraituko dugu». Herri langilearen alde borrokatuko direla esan dute sindikatuko ordezkariak, eta aipatu dutenez, kapitalaren interesei aurre egiteko eremu guztietan lehiatuko dira; lantokietan, kalean eta baita instituzioetan ere. LABek aldaketa politikoak bultzatzeko eragile «aktibo» bezala ikusten du bere burua: «Burujabetzaren aldeko borroka eta bizi baldintzen aldekoa banaezinak dira».

Sindikatuak esan du «une gozoan» datorrela Maiatzaren Lehena LABentzat, 50. urteurrenako ospakizunekin batera. Orain arteko bidetik, langileen aldarrikapenak eztabaida politikoaren erdigunera ekartzen jarraituko duela esan du sindikatuak.

ELAk, errealtatearen irakurketak bertsua egiten du eta nabarmendu du geroz eta panorama konplexuagoa ikusten duela in-



Maiatzaren Lehenean Tolosan egindako mobilizazio baten artxiboko irudia. N.R.A.

guruan. «Aberastasuna geroz eta esku gutxiagotan pilatzen da, herrialde pobreei baliabide naturalak ebasten zaizkie, planeta zeharo kontaminatuta dago, lanaren banaketa sexuala ezartzen digute eta pobrezia orokortuta dago». Belizismoaren gorakadagatik ere kezka azaldu du ELAk, eta Israelgo armadari su etena eskatzearekin batera, Palestinako herriari estatu bat izateko zor zaion esku-bidea aldarrikatu du.

Zerbitzu publikoen gainbeherak, osasungintza publikoan inbertsio ezak, etxebizitza lortzeko zailtasunak eta zaintza sistemaren pribatizatzeak, zuzeneko lotura du enpresa handi eta bankuen hazkundearekin, ELaren ustez. «Politikarien konplizitatearekin ematen ari da hau guztia, argi ikusten da Gasteizko eta Iruñeko gobernuak ez dituztela politika sozialak garatzen».

ELAk Maiatzaren Leheneko mobilizazioekin aldarrikatu nahi du botere ekonomikoaren aurkako konfrontazio politiko, sozial eta sindikala beharrezkoa dela. «Langileak antolatzeak eta konfrontatzeko prest daudenean hobetzen dira lan baldintzak eta modu horretan zabaltzen dira aukerak prekariatetatik ateratzeko. Harro esan nahi dugu greba egin ahal izateak lan hitzarmen gehiago eta hobeak sinatzeko aukera ematen digula». Sindikatuak aitor-tza egin nahi die gaur borroka sozialetako militantzian ekarpena egiten duten langileei, «borroka hauei esker, alternatibak bizi-rik daude, eta hain justu, borroka

horietan dago alternatiba sozial, feminista eta ekologista eraikitze-ko itxaropena».

KONTSEILU SOZIALISTAREN DEIA

Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak *Badago alternatiba* lelopean Maiatzaren Lehenean manifestazioa egingo du gaur Bilbon, 13:00etan, Jesusen Bihotzetik hasita eta Tolosaldeetik bertara joateko deia egin dute. «Langileria osoaren eguna da gaurkoa, gizar-teko baliabideen jabetzarik ez dugun guztiona. Borrokarako egun gisa ulertzen dugu, azken urteetan eman zaion izaera folklorikotik aldentuz».

Kapitalismoaren gaindipena posible dela aldarrikatu du Kontseilu Sozialistak eta esan du «hil ala biziko» kontua dela alternatiba iraultzaile bat gorpuztea. «Alternatiba hori, langileria independenteki antolatzetik eta etengabeko parte hartze militantean oinarritutako eredutik etorriko da».

Kontseilu Sozialistaren ustez langileria bizi baldintzak okertzen ari dira: «Neurri horiek guztiak Europako instituzio politikoek eta oligarkia ekonomikoek diseinatzen dituzte eta bertako alderdiek, eskuin zein ezker, horiek onartzea beste alternatibarik ez dagoela sinestartzen digute. Alderdi guztiek funtsean programa oso antzekoa daukate eta haien artean antzetzen dituzten ezberdintasunak hitz hutsean gelditzen dira erabakiak hartzeko momentua helterakoan».



Larraitzen iazko larre irekiera ekitaldian langa ireki zuten unea. J.M.

Larraitzen eta Komizarren larre irekiera ekitaldiak gaur

Erredakzioa

Enirio Aralar Mankomunitateak Aralarko larreen irekiera festa egingo du gaur Larraitzen. 10:00etatik aurrera behor, behi eta aharien erakusketa, eskulangintza saioak eta bertako jakien salmenta izango da. Goiza girotzeko festa gunean Txingudiko gaiteroak ibiliko dira.

Eguerdian egingo da larre irekiera ekitaldia. Suziria botatzearekin batera artalde eta behiak Larraizko langatik gora abiatuko dira. Behin ekitaldia amaituta, Iker Vicente eta Julen Alberdi ariko dira aizkoran. Joan den larunbateko apustuaren ondorengo lehenengo erakustaldia izango dute gaurkoa. Goiza borobiltzeko bertsotan ariko dira Maialen Akizu eta Bixente Gorostidi.

GANADUA AMASAMENDIRA

Ez da larre irekiera ekitaldi bakarra izango. Amasa-Villabonako ganaduzaleek eta udalak elkarla-

nean Amasamendiko larre irekiera festa antolatu dute gaurko. 11:00etan emango zaio hasiera festari, eta ondoren, musikarekin girotutako hamaiketako egiteko aukera izango da Komizar parkean.

Aurten, guztira, 971 abelburu larreratuko dira; 748 ardi, 134 behi, 58 zaldi eta 31 ahuntz. Amasamendiko abeltzainen ganadua onura publikoko larreetan pasako du uda garaia eta lau-pabost hilabetez behin larre batetik bestera mugituko da.

Aurten, udalaren webgunean argitaratuko den maparen bitartez ganadua zein eremutan dagoen ikusi ahal izango da une oro. *Villabona.eus* webgunean sartu eta *Abereen kokapena larre publikoetan* izeneko estekan klikatuz gero, herriko mapa zabalduko da. Bertan kolore berdez dauden eremuak herriko larre publikoak dira, eta gorri kolorez markatuko dira mapan, momentu horretan abereak dauden esparrua.

LARRE IREKIERA EKITALDIK

LARRAITZEN

10:00. Abere erakusketa: behor, behi eta ahariak. Eskulangintza saioak: artile, saski, harri lantze... Bertako jakien salmenta: gazta, sagardoa, orein produktuak...
11:00. Txingudiko gaiteroak festa gunean.
12:00. Larre irekiera ekitaldia: suziria botatzearekin batera, artalde eta

behiak Larraizko langatik gora abiatuko dira.

12:30. Aizkolariak Iker Vicente eta Julen Alberdiren erakustaldia. Maialen Akizu eta Bixente Gorostidi.

KOMIZARREN

11:00. Komizarren festa hasiera.
Ondoren. Musikarekin girotutako hamaiketako.

Josu Artutxa Dorronsoro

2023ko aurrekontuaren likidazioa egin aurretik, gerakinak berrikusi eta, horiekin, kreditu txertaketa egin du Tolosako Udalak. «Iazko aurrekontuan zeuden diru partida batzuk dira, baldintza batzuk betez gero, aurtengora pasa daitezkeenak», azaldu zuen Estitxu Kortejarena Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza saileko zinegotzi arduradunak.

Guztira 1,5 milioi euro txertatu dira aurtengo aurrekontura. Besteak beste, horien artean daude finantzaketa lotua duen Iurre auzoko urbanizazioa birgaitzeko exekuzio proiektua, Trianguloa plazako berrurbanizazioaren exekuzio proiektua, udaletxeko LED argiteria, Irisgarritasun Planaren eguneraketa, Iurreamendiko babes ofizialeko etxebizitzaren hormaren obra eta hilerriko obra.

Iurre auzoko obrari dagokionez, pasa den astean bildu zen kontratazio mahaia, eta azken txostena falta du, esleipen proposamenarena, alegia. Behin hau eginda, kontratua sinatu eta proiektua idazteko lanak abiatuko ditu udalak. Trianguloako berrurbanizazio proiektuaren kasuan, aldiz, udalak dagoeneko esleitu du proiektua idazteko lana; enpresa esleipendunak ere jarria du bermea, eta berehala sinatuko da bi aldeen arteko kontratua, lanak abiatu daitezela.

GENERO-ERAGINAREN EBALUAZIOA

Udal politiketan genero-ikuspegia txertatzeko beste aurrerapauso bat eman du udalak. Izan ere, lantzen dituen tokiko araudi, ordenantza, administrazioegintza eta plan sektorial eta estrategikoen genero-eraginaren ebaluazioa egiteko jarraibideak onartu ditu, 2024/744 Alkatetzaren Dekretuaren bitartez.



Palestinaren inguruko bi mozio onartu ziren; irudian, oposizioko alderdiak beraiek aurkeztutakoaren alde bozkatzera.

1,5 milioi euro txertatu ditu udalak 2024ko aurrekontuan

Apirileko osoko bilkuran eman dute mailegu txertaketaren berri; hirigintzari lotutako lanen partidak daude tartean. Diru laguntzen ordenantzaren aldaketa ere onartu dute.

Berdintasun sailetik proposatutako neurrietako bat izan dela azaldu zuen Goiuri Ezeiza Berdintasun zinegotziak: «Botere publikoek diskriminazioari aurre egiteko betebeharra dute, eta emakume edo emakume taldeen oinarritzko eskubideak betetzen direla bermatu behar dute». Aurrerantzean, beraz, azterketa eta

balorazioak egiteko eta helburuen zein neurrien eraginkortasuna neurtzeko erreferentziazko ereduak izango dituzte udal langileak.

DIRU LAGUNTZEN ORDENANTZA

Otsaileko osoko bilkuran, Diru Laguntzen Ordenantza Orokorren aldaketa behin-behine-

koz onartzea erabaki zuen udalbatzak. Bada, apirileko bilkuran, behin betikoz onartu berri du, bi akats zuzenduta.

Diru laguntza deialdiak egiteko prozedura arintzeko eta aldaketak txertatzeko malgutasuna izateko aldatu da ordenantza. Orain arte, diru laguntza guztiak arautzen zituen ordenantza oro-

kor bat izan du udalak, eta laguntza bakoitza zehatzago arautzen zuen ordenantza propio bana. Urte batetik bestera, irizpideetan aldaketa bat aplikatu nahi izanez gero, aldaketa bietan egin

Udalak jada esleitu du Trianguloa plazako berrurbanizazio proiektua idazteko lana

Udal politiketan genero-ikuspegia txertatzeko beste aurrerapauso bat eman du udalak

behar zen, prozesua luzatuz. Orain, ordenantza propioak indargabetu dira, eta horien ordeztan, urtebeteko indarraldia duten oinarri arautzaile espezifikoak izango ditu laguntza bakoitzak. Hain zuzen, 2024ko diru laguntzen deialdi bateratua prestatzen dabil udala, eta ondo bidean, hilabete pasatxoko epean emango da deialdi horren berri.

Tolosako Udal Haurreskolak Partzuergoko organo kolegiatuko kide da, baina oraindik izendatzeko zuen udal-ordezkaria. Aurrerantzean, Aitor Agirresarobe Murgi hezkuntzako zinegotzi arduraduna izango da Tolosako Udalaren izenean organoan parte hartuko duena.

PALESTINAREN INGURUKO MOZIOAK

Palestinaren inguruko bi mozio ere izan ziren eztabaidagai osoko bilkuran. Batetik, Palestinarekiko Erantzukizuna Plataformak aurkeztutako mozioa, gehiengo osoz onartua, EH Bilduren aldeko botoekin eta oposizioko alderdien abstentzioarekin. Bestetik, EAJk eta PSE-EEk aurkeztutakoa, gehiengoz onartua, bi udal talde horien babesarekin; udal gobernuak zinegotziek abstentziora jo zuten.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



Iazko Ataria Pilota Topaketaren finalak Zizurkilgo Intxaur frontoian jokatu ziren. Irudian, finalistak, antolakuntzako hainbat kide eta sariak banatu zituzten pilotari profesionalak. N.R.A.

Guztira 302 pilotari ariko dira parte hartzen bihartik aurrera VIII. Ataria Pilota Topaketan, eskuz zein palaz; eskuzko modalitatean nesken maila bat antolatu dela izan da aurtengo berritasuna

Pilota sustatzeko asmoz

Imanol Garcia Landa

Abian jarriko da bihar VIII. Ataria Pilota Topaketa. Guztira 302 pilotari ariko dira parte hartzen, eskuz eta palaz, eskualdeko pilota topaketa honetan. Eskuz bost maila antolatu dira: benjamin A, benjamin B, alebinak, infantilak eta lehendabizikoz nesken benjamin eta alebin maila. Palaz bi maila izango dira: benjamin eta alebinak, batetik, eta infantilak, bestetik.

Eskualde ikuspegitik antolatu-tako egitasmoa izaki, hainbat herri-tako frontoietan jokatu-ko dituzte partidak pilotariak: Villabona, Alegia, Bidania, Berastegi, Tolosa, Amasa, Anoeta, Alkiza, Zizurkil, Albiztur, Abaltzisketa,

Aduna eta Altzo. Maila guztietako finalak Baliarraingo frontoian jokatu-ko dira, ekainaren 29an.

Horrelako topaketa batek aurrera egiteko beharrezkoa da eskualdean pilotaren inguruan aritzen diren eragileen parte hartzea. Koordinazio orokorra Luis Galarragak ematen du, eta antolakuntzaren parte dira Aurrera Tolosa (Tolosa), Behar Zana (Amasa-Villbona), Intxurre (Alegia, Altzo, Ikaztegieta eta Baliarraingo), Kuku (Anoeta), Otsabio (Lizartza), Txulobi (Aduna), Zazpi Iturri (Amezketza) eta Ziotza (Zizurkil) pilota elkarteak, eta Al-

biztur, Alkiza, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz eta Larraulgo pilota eskolak.

Gaztetxoaren artean pilota sustatzeko garrantzia duen egitasmoa dela azaldu dute antolakuntzaren parte diren pilota elkarte eta eskolako kideek. Behar Zana elkarte-ko Iñaki Lizasok azaldu duenez, «gure pilotariak eskolarteko pilota txapelketa izan dute orain arte, eta gure bailaran Aiztondo Pilota Topaketa bukatu berri dugu, eta horrek modu batera asetzen ditu, baina benjamin maila arte edo, eta alebinitan errendimenduan jokatzeko ez

duten horientzako, bada beste pizgarri bat ikasturtea amaitu bitarte pilota partidak jokatu ahal izateko. Tolosaldeko pilota sustatzeko beste ezinbesteko ekin-tza iruditzen zait».

PILOTARIAK, HASTEKO ZAIN

Pilotariak irrikaz espero dute topaketaren hasiera, Albizturko pilota eskolako Gorka Arandiak azaldu duenez: «Eskolarteko partidak bakarrik jokatzeko dituztenak zain izaten dira noiz iritsi-ko». Intxurre elkarte-ko Olatz Irazustabarrenak gaineratu du dagoeneko topaketak «tradizioa

eta izena» duela pilotarien artean, eta txikiak izaten direla batez ere topaketaren hasiera iristeko zain. «Parte hartzaile kopuruak erakusten du pilota osasuntsu dagoela Tolosaldean», zehaztu du Lizasok. Palaz jokatzeko pilotari gutxiagok ematen dute izena, eta alde horretatik Lizasok animatu ditu eskualdeko pilota elkarte eta eskolak modalitate hori eskaintzera.

Irazustabarrenak aurtengo berrikuntza nabarmendu du, hau da, neskek eskuz beraiekin artean jokatzeko aukera izango dutela, benjamin eta alebin mailak nahastuz. «Hasiera bat izan daiteke», esan du, «eta espero dugu hurrengo urteetan neska gehiago animatzea parte hartzera modu horretan». Neska gutxiagok eman izan dute izena eskuz jokatzeko, eta mutilekin parte hartu izan dute orain arte. Arandiak azaldu duenez, «aukera es-

«Eskualdea ezagutzeko aukera ematen die pilotari gaztetxoei, batetik bestera mugitzen direlako»

OLATZ IRAZUSTABARRENA
INTXURRE PILOTA ELKARTEA

«Garrantzitsua da beraiei azpimarratzea jolas bat dela eta ondo pasatzea dela helburua»

IÑAKI LIZASO
BEHAR ZANA PILOTA ELKARTEA

«Egun badaude eskualdean emakumezko pilotariak eskuz goi mailan dabiltzanak»

GORKA ARANDIA
ALBIZTURKO PILOTA ESKOLA

MAILAK ETA EGOITZAK

Eskuz, benjaminak A

Villabonan, Alegian, Bidanian eta Berastegin jokatuko dituzte partidak. 36 bikote eta zortzi hirukote ariko dira parte hartzen.

Eskuz, benjaminak B

Tolosan (Beotibar), Amasan eta Anoetan jokatuko dituzte partidak. 23 bikote eta zazpi hirukote ariko dira parte hartzen.

Eskuz, alebinak

Alkizan, Zizurkilen eta Albizturren jokatuko dituzte partidak. 30 bikote eta hiru hirukote ariko dira parte hartzen.

Eskuz, infantilak

Abaltzisketan jokatuko dituzte partidak. 13 bikote ariko dira parte hartzen.

Eskuz, neska benjamin eta alebinak

Adunan jokatuko dituzte partidak. Zortzi bikote ariko dira parte hartzen.

Palaz, benjaminak eta alebinak

Altzon jokatuko dituzte partidak. Sei bikote ariko dira parte hartzen.

Palaz, infantilak

Altzon jokatuko dituzte partidak. Sei bikote ariko dira parte hartzen.

kaini zaie eta bidezkoa da neskek nesken kontra jokatzeari. Egun badaude eskualdean emakumezko pilotariak eskuz goi mailan dabilenak, eta erreferenteak direnak. Olatzek esan duen moduan, ea topaketan aurten jarri ahal izan den maila berri honek neska gehiago animatzen di-tuen parte hartzera».

Pilotariak partidak iristeko zain izaten dira, baina orduan ere urduritasunak agertzen dira. «Txikienak urduri jartzen dira batez ere partidako egunean», esan du Arandiak. «Azkenean horrelako topaketek ikasteko balio die pilotariei», gaineratu du

Lizasok. «Garrantzitsua da be-raiei azpimarratzea jolas bat dela eta ondo pasatzea dela helburua, eta gurasoei ere mezu hori zabaltzen diegu, bide batez bere seme-alabei esateko».

Irazustabarrenak ere nabarmendu du topaketak duen eskualdeko ikuspegia: «Partidak herri txiki askotan jokatzen dira, eta batzuetan ez da oso ohikoa izaten. Eskualdea ezagutzeko aukera ematen die pilotari gazte-txoei, batetik bestera mugitzen direlako. Aurten Baliarrainen izango dira finalak, eta horrelako herri txiki batentzat ere pizgarria da ekitaldi hori hartzea».



Palaz bi maila izango dira. Irudian, iazko Ataria Pilota Topaketako partida bat. N.R.A.

Apatta industriagunean dagoen Oria Sport Wear enpresak jantzten ditu egun pilotari profesionalak, eta aurtengo Ataria Pilota Topaketaren babesle moduan, pilotari gaztetxoek partidetan erabiliko dituzten kamisetak jarri ditu

Pilotari profesionalen moduan jantzita

I. Garcia Landa

Aurtengo Ataria Pilota Topaketan babesle moduan ariko da Ibarrako Apatta industriagunean dagoen Oria Sport Wear enpresa. Izan ere, enpresak jantziko ditu topaketan parte hartuko duten pilotariak.

Orain gutxi Oria Sport Wear-ek eta pilota profesionaleko Baiko Pilota eta Aspe Pelota enpresek egin zuten pilotarien jantzi berrien aurkezpena, Apatta industriagunean bertan, tartean pilotari profesionalak zeudela. Beste pauso garrantzitsu bat eman dute bere ibilbidean, Oria Sport Wear enpresako koordinatzailea den Rakel Uribeetxeberriak azaldu duenez.

Pilota eskolekin ere aurretik harremana zutela nabarmendu

du Uribeetxeberriak, eta pilotari profesionalen jantziak egitearekin, beraien helburua «gu ezagutzeari, hemen bertan gaudela, eta dena bertan egiten dugula jakinaraztea da».

Orain bost urte jarri zuten martxan enpresa, eta Tolosaldearekin «oso eskertuta» daudela azaldu du Uribeetxeberriak: «Hasieratik kirol klubak, eta lagun taldeak ere, galdetzeraz etorri dira, gu ezagutzera, aurrekontuak eskatzera, egiten dugun arropa mota ikustera... Bost urte hauetan pauso handi batzuk ematen joan gara», zehaztu du.

Bere webgunearen bidez erosi daitezke kirol arropak, eta kirol dendetan ere lortu daitezke pilotari profesionalen jantziak eta bestelako arropak, Oria Sport Wear-ek egindakoak. Kirol mota ugarirentzako jantziak egiten dituzte bertan, eta eskualdeko



Rakel Uribeetxeberria eta Iban Urdapilleta. I.G.L.

hainbat kirol talde jantzten dituzte, eta baita eskualdetik kanpo-koak ere.

Bertan egindakoa eta eskuz egindako lana dela nabarmendu

du Uribeetxeberriak. «Guk kalitatea dugu, eta hori zaintzen dugu hasieratik. Guk nahi dugu dena bertan eduki eta kontrolatu. Kirol taldeek batzuetan behar

izaten dituzte denboraldian zehar beraien arropa gehiago, eta aukera dugu hemen hori eskaintzeko, pertsonalizatu egiten ditugulako. Garrantzitsua da hori kirol talde txikientzako».

Hain justu, Oria Sport Wear-entzako garrantzitsua bertako kirolekin eta taldeekin harremana izatea dela gaineratu du: «Guk kirolariengandik ikasten dugu. Zer botatzen duten faltan galdetzen diegu eta elkarrekin erantzunak bilatzen ditugu».

Iban Urdapilleta ATARIA-ko kudeatzaileak antolakuntzaren aldetik eskerrak eman dizkio Rakel Uribeetxeberria eta Oria Sport Wear enpresari, aurtengo topaketaren babesle izateagatik. «Eskualde ikuspegitik lanean ari garen bi eragileren lankidetzak hau garrantzitsua da, eta espero dugu aurrerantzean jarraipena izatea», azaldu du Urdapilletak.

Mende laurdena ospatzeko egun osoko egitaraua eta erakusketa

Sutarri dantza taldeari buruzko erakusketa jarri dute Alegiako udaletxeko ganbaran; larunbaterako hainbat jarduera prestatu dituzte, eta 140 bat lagun bilduko dira bazkarian

Aitor Arroyo Askarai

Alegiako Sutarri dantza taldeak 25 urte betetzen ditu aurten, eta hainbat jarduera ari dira egiten urteurrena ospatzeko. Asteon dantza taldeari buruzko erakusketa jarri dute ikusgai udaletxeko ganbaran eta, larunbatean, egun osorako egitaraua antolatu dute.

Larunbatean goizean goizetik ekingo diote ospakizunari: 11:30ean kalejira herrikoia egingo dute herrian zehar Lasko txarangarekin eta hainbat dantza eskainiko dituzte. Eguerdian, bazkari herrikoia egingo dute plazan eta 16:30etik 19:00etara erromeria izango da Elizagoien ahizpen eskutik.

AZKEN UNEAN, GORA

«Hasieran nahiko motel nabaritu ditugu herritarrek, bazkarirako izen-emateetan eta... Baina, betikoa, azken momentuan denek batera eman dute izena. Jendea animatu da, eta giroa ere areagotuko da eguna gerturatu ahala», horrela hitz egin du Marta Iraola dantza taldeko kide eta eguneko antolatzaileetako batek.

Guztira, 140 bat lagunek eman dute izena bazkarian. Arantxa Segurola da dantza taldeko kide eta eguneko beste antolatzaileetako bat, eta aipatu du «propio» aukeratu zutela larunbata festa ospatzeko, jendeak «deskantsatzeko» igandea izan zezan.

Biek ala biek nabarmendu dute «guztia antolatzen» lagun du dietela Alegiako Udalak eta herriko merkatariek zein elkarrekin. Eta hari berari tiraka, «esker bereziak» eman dizkiote Intxurre kultur eta kirol elkarteari: «Laguntza aldetik ez daukagu kexatzerik, denak inplikatu dira asko».

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeola lanak. Emakume bat behar da lurrantxeola lanak eta bazkaria egiteko, goizetan ordu eta erdiz asteartetik ostiralera. 625 705 062.



Marta Iraola eta Arantxa Segurola Sutarri dantza taldeko kide eta ekimenen antolatzaileak, Alegiako udaletxeko erakusketan. A. ARROYO

Erakusketa larunbatera bitarte egongo da ikusgai, 18:00etatik 20:00etara; argazkiak, jantziak eta argazki-bideo bat jarri dituzte dantza taldearen ibilbidea irudikatzeko

Jantziak eta argazkiak, bidearen isla

Sutarri dantza taldearen 25 urteko ibilbidea jaso dute jantzien eta argazkien erakusketan. Alegiako udaletxeko ganbaran jarri dute esposizioa, eta ikusgai egongo da larunbatera bitarte, 18:00etatik 20:00etara.

Arantxa Segurola kideak azaldu du jantziak dantza taldeak urtez urte «erabili eta osatu» dituenak direla: «Aurrekontu handirik ez daukagunez, askotan, traje berdina izaten dira, baina ukitu ezberdinak emanda: gerriko berri bat, zapi ezberdin bat, kamiseta bat...». Hark kon-

tatu duenez, horregatik ez daude «traje asko», berritu eta berrerrabili egiten dituztelako.

BILTZEKO GORABEHERAK

Jantziak lortzeko ez dutela arazorik izan aipatu du Marta Iraola dantza taldeko kideak. Armairu batean gordetzen omen dituzte jantzi guztiak, eta «txukun-txukun» zaintzen dituzte: «Erabili egiten ditugu, baina taldekideek ondo zaintzen dituzte eta bere garaian itzultzen dituzte».

Ez da horrela izan, ordea, argazkiekin. Antolatzaileek esan dutenez arazoak izan dituzte dantza taldea sortu zen garaiko

irudiak lortzeko: «Argazki zaharrak biltzea izan da pixka bat zailena». Kontatu dutenaren arabera, urte hauetan zehar ez da inor «espresuki» arduratu argazkiak ateratzeaz eta biltzeaz. Dena dela, hori ez da traba izan eta «gutxi-asko» lortu dute dantza taldearen ibilbidea osatzeko.

INPLIKATZEAREN GARRANTZIA

Jarduera horien helburuetako bat dantza taldearen «atzean dagoen lana» ikusaraztea dela ere aipatu dute antolatzaileek: «Ederra da horrelako gauzak antolatzea, baina lan handia

eskatzen dute. Jendea inplikatzeko beharrezkoa da, eta horretaz jabetu behar gara». Bide beretik, gogobeteta hitz egin dute emaitzaren inguruan eta larunbata «egun polita» izango delakoan daude.

Bestalde, urteurrena baliatu dute gogora ekartzeko Sutarri sortu zen garaian laguntza jaso zutela Udaberri dantza taldearen eskutik eta, gerora, Oinkari taldekoek ere lagundu zutela. Talde horietako kideak irakasle izan zituztela kontatu dute eta eskerrak eman dizkiete. Gaur egun, berriz, Sutarrikoak omen dira dantza taldeko irakasleak.



Pasa den urteko txapelketaren une bat. I. GARCIA LANDA

Futbolaren bueltako festa Berazubín, egun osoan

Infantil mailako nesken VIII. Nescup Txapelketa izango da gaur; hamabi talde lehiatuko dira, tartean Tolosa CFko bi eta Alegiako Intxurre

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Berazubi futbol zelaia VIII. Nescup txapelketa hartuko du gaur. Tolosako futbol klubak antolatzen duen txapelketa honetan infantil mailako neskek hartzen dute parte, eta orotara, hamabi talde lehiatuko dira.

Ohi bezala, Tolosa CFko bi taldek parte hartuko dute, eta eskualdeko beste talderik ere izango da, Alegiako Intxurre. Horiez gain, Real, Lagun Onak, Eibar, Hernani, Intxaurdi, Anaitasuna, Añorga eta Goierri Gorri taldeak ariko dira. Gipuzkoatik kanpoko talde bat izango da aurtengoan, Nafarroako Mulier.

Aiheko Uria Tolosa CFko emakumeen futbol ataleko koordinatzaileak esan duenez, nesken arloan «erreferente» diren taldeei luzatzen diete deialdia, eta batik bat Gipuzkoako taldeak izaten dira normalean parte hartzen dutenak.

Egun osoko txapelketa izan ohi da. 09:00etan hasiko dira partidak. Saillkapen fasea jokatzen dute hasieran, eta bertan, hamabi taldeak hiru taldetan banatuta, elkarren aurka jokatzen dituzte 20 minutuko iraupena duten partida azkarrak. Talde bakoitzeko lehenengo biak hurrengo fasera sailkatzen dira, eta

azken biak ere beste fase batera pasatzen dira. «Okerren gelditu diren artean eta hoberen gelditu diren artean jokatzen dituzte, beraz, partidak hurrengophasen», azaldu du Uriak. 13:00ak aldera bukatuko dira goizeko partidak, eta arratsaldeko partidetan, 14:30etik aurrera, hirugarren eta laugarren postuak eta lehengo biak egongo dira jokoan. 18:00ak alderako aurreikusi dute jokatuko dutela finala.

Pasa den urteko txapelketa Mulier talde nafarrak irabazi zuen, finalean Basauriko Kimuak taldeari 3-1 irabazi ostean. Tolosa B taldeak lortu zuen hirugarren postua.

Uriak esan duenez, taldeek ahalik eta partida gehien jokatzea da ekimenaren asmoa, «futbolaren inguruko festa egun bat» izatea baita helburua. Era berean, herritar guztiak gonbidatu ditu Berazubiko zelaira gerturatzerak partidak ikustera: «geroz eta maila politagoa duen txapelketa da, eta futbola gustatzen zaionarentzat eta horrelako txapelketak atsegin dituenarentzat egun polita izaten da». Gainera, musikak giroa du eguna, eta taberna zerbitzua ere izango dela gogoratu du Tolosa CFko ki-deak.

Eskualdeko bost herri, Herriarteko txapelketan

Aduna, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa eta Tolosak hartuko dute parte eskuzko modalitatean; gomazko paletan Tolosa lehiatuko da; asteburu honetan hasiko dira

Erredakzioa

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak antolatutako Herriarteko Pilota Txapelketa asteburu honetan hasiko da, eta urtero moduan, eskualdeko herrien parte hartzea izango du. Hain justu, Tolosaldeko bost herri ariko dira lehian, eta guztiak eskuzko modalitatean ariko dira: Aduna, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa eta Tolosa. Go-

mazko paletan ordezkari bakarra izango da, Tolosa, eta zesta puntan eta larruzko paleta eta paleta motza modalitateetan ez du Tolosaldeko herririk parte hartuko.

Eskuzko modalitateari asteburu honetan emango zaio hasiera, final-hamaseirenekin. Bertan, Adunak Azkoitiaren aurka jokatuko du, Tolosak Beasainen aurka, Amasa-Villabonak Bergararen aurka eta Amez-

ketak Oñatiren kontra. Altzoren kasuan, final-zortzirenetan hasiko du bere bidea, maiatzaren 19ko asteburuan, eta bere aurkaria Zaldibia eta Idiazabalen arteko norgehiagokaren irabazlea izango da.

Gomazko paletari dagokionez, Tolosa final-hamaseirenetan hasiko da, eta Zumaia izango du aurkari. Kasu honetan ere, asteburu honetan ekingo diote lehiari.

XIV Orduetako materiala banatzen hasiko dira gaur

Erredakzioa

XIV Orduak ibilaldia maiatzaren 19an izango da, eta gaur hasiko dira materiala banatzen parte hartzaileei. Aralarko Adiskideak elkartearen egoitzan (Tolosako Araba etorbidean) egongo dira banaketa egiten, 16:00etatik 20:00etara.

Dena den, gaur joaterik ez duenak egun gehiago izango ditu aukeran. Proba egunerako gertatzen diren hiru larunbatetan, maiatzaren 4, 11 eta 18an, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango dira; eta maiatzaren 8an, eta maiatzaren 13tik 17ra, arratsaldez egongo dira, 16:00etatik 20:00etara.



Aralarko Adiskideak taldeko kideak, materialarekin. I. GARCIA LANDA

Banatuko duten materiala ondokoa izango da: kantinplora, kamiseta, ATARIA-ko harpide egiteko eskaintza, ibilaldiaren inguruko arauen inguruko informazioa, eta txartela parte hartzaile bakoitzaren izen eta abizenekin. Txartel horretan zigitua jartzen

joango zaie parte hartzaileei ibilaldian zehar egongo diren anoa gunetako kontroletan.

Izena eman nahi duenak Zirkuitua.com webgunearen bitartez egin behar du. Ia 1.500 mendizalek eman dute dagoeneko izena proban parte hartzeko.

HERRI URRATS AUTOBUSA

MAIATZAK 12 | SENPERE

IRTEERA ORDUAK:
IKAZTEGIETA: 9:00, Kiroldegiko geltokia.
ALEGIA: 9:05, Ferreteriko geltokia.
TOLOSA: 9:10, Santa Klarako geltokia.
ANOETA: 9:15, Apaetxe baserrian.
IRURA: 9:20, Ikastolan.
VILLABONA: 9:25, Elizako geltokia.

ITZULERA:
19:00, Senpere.

IZEN EMATEA:
IKAZTEGIETA: Ostatua.
ALEGIA: Kultur etxea.
ANOETA: Ikastola.
IRURA: Ikastola.
TOLOSA: Galtzaundi.
VILLABONA: Zubimusu ikastola (zentroa).
ZIZURKIL: Ernio bidea 9ko udal bulegoa.

Prezioa: 14 euro (Galtzaundikideek eta atarikideek 12 euro).

Autotzaleak:

Lapurtzaileak:



Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
AnoetaIdea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasearen jarraipena egingo du; gaur izango da lehen saioa entzungai FM bidez nahiz 'Ataria.eus'-en

300. programa osatzearekin isil-
du zen Ataria Irratiko (*H*)*ari Nai-
zela* irratsaioa, iragan abenduan;
eta bueltan da, orduan aipatu be-
zala, Gipuzkoa Bertsotan, Gipuz-
koako Bertsolari Txapelketarako
sailkapen fasea itzultzearekin
batera. Imanol Artola *Felix*-ek ja-
rraituko du saioa gidatzen. Ete-
naren ostean «indarrez» itzuli
da, «eskualdeko bertsozaleek
merezi duten irratsaioa egiten ja-
rraitzeko».

Gipuzkoa Bertsotan faseko saioen jarraipena egingo du (*H*)ari Naizela saioak, eta, bereziki, eskualdeko bertsolarien bertsosaldiek eta eskualdean jotkatzen diren kanporaketetako bertsosaldiek izango dute lehentasuna. «Orain arteko gidoia mantentzea erabaki dugu», azaldu du Artolak; «ohiko sarrera izango du irratsaioak, aurreko asteko bertsosaldietako informazioa emango zaie entzuleei, eta, segidan, bertsoak entzuteari ekingo diogu». Gipuzkoa Bertsotan fasean aste bakoitzean lau kanporaketa direnez «nahi baino bertsosaldi eta ahots gehiago» utzi beharko dituztela kanpoan esan du, eta aukeraketa egitea ez dela erraza izango aitortu du amezketarrak. Lehen irratsaioa gaur izango da entzungai Ataria Irra-



tian (Fm 107.6 edota *Ataria.eusen*), eta Eskoriatzako, Gabiriako eta Zestoako kanporaketetako bertsoaldiekin osatuko du.

Asteazkenetan 20:00etan eta igandeetan 14:00etan izango da FM bidez eta *Ataria.eus*-en entzungai, eta nahieran ere entzun ahalko da, *Ataria.eus*-en (*H*)*ari Naizela* irratsaioaren atalera joz.

ZOZKETAK

Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean hiru kanporaketa jokatu-ko dira eskualdean: Altzon, bihar; Anoetan, maiatzaren 10ean; eta Alegian, maiatzaren 26an. Altzoko saiorako ez, baina

gainerako bi saioetarako sarre-
rak zozketatuko dira (*H)ari Nai-
zela* irratsaioan. Bertso saioaren
aurreko asteko irratsaioan egin-
dako galderari erantzun beharko
diote entzuleek, *whatsapp* audio
bidez, eta 695 76 28 43 zenbakira
bidali beharko dute erantzuna.
Lehen zozketa maiatzaren 8ko
irratsaioan egingo da, Anoetako
saiorako bi sarrera zozketatuko
dira, eta erantzun beharreko gal-
dera honakoa da: «Jon Luzuria-
ga ikaztegietarrek Anoetan kan-
tatuko du. Bada, jakin nahi du-
guna da ea zenbatgarren
parte-hartzea duen Jonek Gi-
puzkoa Bertsotan fasean».

AGENDA

Deialdiak

Baliarrain. Ipuin kontaketa antzez-
tua Joxemiel Barandiaran oroitzuz,
17:00etan. Marimunduren eskutik.
Joxemiel Barandiaranek jasotako
ipuinak kontatu eta antzeztuko di-
tuzte. Pertsonaia mitologikoak ikus-
teko aukera izango da.

Tolosa. Leitzaran ibaia babestutako biotopo artea, Biodibertsitate Gunearen eskutik. 08:40ean R enfeko geltokian egin dute hitzordua. Izena emateko, biodibertsitategu-nea@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Tolosa. Nescup Txapelketa, Berazubi estadioan, 09:00etan hasita.

Tolosa. Esku pilota jaialdia Beotibar pilotalekuan, 17:00etan hasita:

Eskiroz vs. Zubizarreta III, Egiguren V
vs. Salaberria, P. p. Etxeberria-Gabi-
rondo vs. Exposito-Tolosa.

Larre irekiera ekitaldia

Abaltzisketa. Aralarko Larreen Irekiera: 10:00. Abere erakusketa: behor, behi eta ahariak. Eskulangintza saioak: artile, saski, harri lantze... Bertako jakien salmenta: gazta, sagardoa, orein produktuak... 11:00. Txingudiko gaiteroak festa gunean zehar. 12:00. Larre irekiera ekitaldia: suzuria botatzearekin batera, artalde eta behiak Larraizko langatik gora abiatuko dira. 12:30. Aizkolariak Iker Vicente eta Julen Alberdi. Apustuaren ondorengo lehen erakustaldia. Maialen Akizu eta Bixente Gorostidi.



Amasa-Villabona. Larre irekiera:
11:00. Komizar parkean Larre irekiera.
Ondoren, hamaiketako banatuko
dute.

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.
Oscar Etxebeste Etxarri.
Gernikako Arbolaren Lorategiak 3.
943 65 10 40.

TOLOSA. Gauekoa.
Lourdes Azpiroz Galarza.
Larramendi 6 behea, 1. 943 67 5118.

EGURALDIA**IKER IBARLUZEA**

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

**Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez**

zozketak

Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu



Maiatzak 3, ostirala
20:30ean
Donostiako Angulas
Aguinaga Arenan

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu



Maiatzak 10, ostirala
19:00etan Anoetako
Mikelasagasti auditorioan

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**